



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2015/11/23

## **Aldundiak kargutik kenduko dau aholkulari jeltzale bat, justiziak haren "akusazinoa" erabagiten badau**

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andrea Batzar Nagusien aurrean agertu da gaur, oposizinoko talde guztiek eskatuta (EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP), soziedade delituarengaitik, prebarikazinoarengaitik eta diru publikoen bidebako erabilerarengaitik "inputauta" dagoan Antonio Elorza Zierbenako alkate izandakoa aholkulari moduan izendatzeagaitik. Aldundiko arduradunak Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko batzordean adierazo dauenez, epaitegiek haren "akusazinoa" erabagiten badabe, justizia une honetan ikertzen ari dan pertsona bere kargutik kendu egindo da. Bitartean, Aldundiak bere karguan eukiko dau, errubakotasun presuntzino printzipioa defendiduz.

Gertakarien kronologia egin aurretik, Unzueta bat etorri da batzarretako taldeakaz, Batzar Nagusiak ez dirala epaitegi bilakatu behar esatean, eta horren ostean kritikau egin dau Zierbenako alkatea izandakoaren ganean egin dan "kondena politikoa eta mediatikoa". "Itzi deiogun" justiziari bere beharra egin daian, eta ez daigun agerraldi hau "epaiketa paralelo" bilakatu, eskatu dau.

Unzuetak jakinarazo dauenez, urte honetako garagarrileko 28an egin zan Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, Marcelino Elorza, berak zuzentzen dauen sailerako aholkulari izendatu eban, eta hilebete batzuk geroago, "irailaren bukaeran", aholkulariak berak "jakinarazo eutsan" Foru Aldundiari, justizia Zierbenako udalaren buru moduan egin eban kudeaketea ikertzen ari zala. Batzarretako taldeek adierazo dabenez, epaileak Elorza inputau dau, Eugenio Barquín alkateordea Zierbena Portua izeneko udal soziedadearen kontseilari eskuordetu moduan euki ebalako, goi mailako zuzendaritzako kontraturik egon barik.

Unzuetak azpimarratu dauenez, Elorza "inputauta dago, baina ez akusauta", eta lerro hori gainditu arte Aldundiak ez dau haren kontra ezelango neurririk hartuko. Bete egingo da, holan, Batzar Nagusiek eurek, urte honetako urtarrilaren 13an egindako osoko bilkuran onetsi zan arauz besteko proposamena (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen aldeko botoagaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz), ustelkeria kasuetan, "ahozko epaiketea zabaltzea agintzen zan" unean, Aldundiko arduradunak euren eginbeharretatik kentzeko.

Oposizinoko talde batzuek zalantzan jarri ditue Elorzak Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Saileko aholkulari taldeko kide izateko dituan merituak. Unzuetak defendidu egin dau ikertutako pertsonaren izendapena, Ekonomia Zientzietako lizentziaua dalako, Enpresa Zientzietan eta Enpresa Zuzendaritzan Diplomatu, bost hizkuntza egiten ditualako eta hainbat m4ster ditualako eginda, gaur egungo araudiak aholkulari lanpostu bat eskuratzeko ezelango titulazinerik eskatzen ez dauen arren.

Oposizino osoak – EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP–, bere aldetik, eskaerea egin deutso diputatu andreari, Elorza bere kargutik oraintxe bertan kendu daian. Bere inputazinoak, herritarrek klase politikoan daukien konfiantzea murrizten dabenean eta Aldundiaren izen ona zikintzen dabenean kasuen aurrean "Aldundiak erreakzionau behar dauen modua jarten dau mahai ganean".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Podemos Bizkaiako Asun Merinerok salatu egin dau aholkulariak “karnet politikoarengaitik aukeratuak izatea, eta ez merituengaitik”, eta eskaerea egin dau aholkulari jeltzalea kargutik kentzeko, inputauta dagoan honetan, “gardentasunaren eta gobernu onaren keinu moduan”.

David Lopategi EH Bilduko ordezkariak esan dauenez, Aldundiak inputauta dagoan pertsona baten aurrean izan dauen erantzuna “nasaia” izan da, erakundearentzat “kaltegarria da” eta Aldundian “gauzak ez dirala aldatu” erakusten dau, “politika zaharraren estiloa” bereganatu dauelako.

Arturo Aldecoaren (PP) eretxiz, Elorza “politikagaz lotutako gaiak dirala eta” dagoala inputauta da “arazoa”, eta ironiagaz esan dau ez dagoala inputauta bizikideen erkidegoagaz erlazionautako gaiak dirala eta. Ordezkari popularraren eretxiz, interesaua bera izan beharko litzateke postua iztea erabagi beharko leukeena, eta holan ez bada, Aldundiak kargutik kendu beharko leukeela, “aldi baterako”, epaitegiek euren erabagia emon arte.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek bat egin dabe Unzuetak esandakoagaz, justizia epaitegiei euren beharra egiten izteko esanez, oraindino ez dalako gainditu Batzar Nagusiek, kontrako boto barik, onetsi eben lerroa; Aldundiko kargu bat bere kargutik kentzea fiskaltzak “ahozko epaiketea zabaltzea” erabagiten dauenean, une horretan salatutako pertsona “inputauta edo ikertuta” egotetik “akusauta” egotera igaroten dalako.

Holan gertatzen bada, urtarrileko arauz besteko proposamen haren alde agertu zan eta Aldundiaren Kode Etikoa sinatu daben karguak dituan Batzarretako talde sozialistak kargua iztea “exijiduko dau”. “Orduan egongo da hemen alderdi sozialistea, baina ez lehenago”, adierazo dau Alexia Castelok, eta uste dau holan egiten ez bada, “edozein salaketa nahikoa izango dala baten bat bere kargutik kentzeko”.

EAJ-PNVko María Presak esan dau bat datorrela Batzarretako ganerako taldeakaz, ustelkeriaren arloan “ezin dala beste leku batera begiratu”, esatean. “Delitu bat egiten dauenak ordaindu eta erantzukizun politikoak bere gain hartu beharko ditu”, esan dau. Baina kritikau egin dau Aldundiaren eta bere alderdiaren “zintzotasuna eta gobernu ona zalantzan jarten dituen” salaketa horreen ostean dagoan “motibazioa”. “Kargu jeltzaleak salatzea kirola” bilakatu da, esan dau.

Batzordekide sozialistak esan dauenez, zoritxarrez, “inork ez dau ezer egiten errubakotasuna adierazoten daben epaiak emoten diranean”. Kasu honetan, “kaltea eginda dago, eta susmoaren gerizpea guztiz zabaldu da”. Hori dala eta, beste ezer baino lehen errubakotasun presuntzinoaren printzipioa errespetetea eskatu dau.

## AZTERLANA LAPURRETAK JASATEN DITUEN ABELTZAINENTZAKO LAGUNTZEN LERROA ZABALTZEKO

Beste alde batetik, batzordeak aho batez onartu dau Aldundiak “lapurretak jasan dituen Bizkaiko abeltzainei laguntzak emoteko lerro bati buruzko azterlan” bat egitea. Ekimena defendidu dauen Arturo Aldecoa popularrak adierazo dauenez, sektore horretan ganadu, makina, bazka eta tresna lapurretak ari dira gertatzen, beste batzuen artean, eta horrek oraindino eta gatzago egiten dau eten barik beherantz doazan lurraldeko abeltzaintza ustiategiak bizirik



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

irautea. Lapurretea “azken kolpea” izan daiteke abeltzain batzuentzat eta, horregaitik, alkarlanerako bideak zabaltzearen alde agertu da, beti be, lapurretea “egiaztauta dagoanean, salaketa baten bitartez, eta eragindako kalteak argi eta garbi erakutsi daitezazanean”.

Ganerako taldeak azterlana egitearen alde agertu dira, baina zalantzan jarri dabe laguntzak emoteko aukerea, oraindino zehaztasun asko lotu behar diralako, zenbat ordaindu beharko dan edo nor izango dan onuraduna, adibidez. Ganera, uste dabe aldeak sortu daitezazala beste sektore batzuekaz alderatuta. “Gatxena laguntzaren esparrua lege esparruagaz bateratzea izango da”, adierazo dau Jon Sánchezek, eta autortu dau –bere taldeak lehen sektoreko “adituei” eta aseguru etxeei kontsultak egin eta gero– “nahiko gatxa dala lapurretak jasaten dituen taldeentzako laguntzak martxan jartea”. “Uste dogu ezinezkoa izango dala hori lege esparru barruan gauzatzea. Hori dala eta, Sanchez, “sektorean itxaropenik ez sortzearen alde” agertu da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
23/11/2015

## **La Diputación apartará del cargo a un asesor jeltzale si la justicia determina su "acusación"**

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta ha comparecido hoy en Juntas Generales a petición de toda la oposición (EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP) en relación al nombramiento como asesor del exalcalde de Zierbena, Marcelino Elorza, "imputado" por un presunto delito societario, prevarización y malversación de caudales públicos. La responsable foral ha señalado, en la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural del Parlamento vizcaíno, que el investigado por la justicia será apartado en caso de que los tribunales establezcan su "acusación". Mientras tanto, la Diputación le seguirá manteniendo en el cargo en defensa del principio de presunción de inocencia.

Antes de pasar a realizar una cronología de los hechos, Unzueta ha coincidido con los grupos junteros en que las Juntas Generales no deben convertirse en un juzgado, para seguidamente criticar "la condena política y mediática" que se ha hecho sobre el que fue regidor de Zierbena. "Vamos a dejar" que la justicia haga su labor y a no convertir esta comparecencia en un "juicio paralelo", ha pedido.

Unzueta ha informado de que el Consejo de Gobierno de la Diputación del 28 de julio de este año nombró a Marcelino Elorza como asesor para el departamento que ella dirige y que fue unos meses después, "a finales de septiembre", cuando él mismo "puso en conocimiento" de la institución foral que su gestión al frente del ayuntamiento de Zierbena estaba siendo investigada. Según los grupos junteros, el juez imputa a Elorza por mantener en la sociedad municipal Zierbena Portua al teniente de alcalde Eugenio Barquín como consejero delegado entre 2011 y 2012 sin mediar un contrato de alta dirección.

Unzueta ha constatado que Elorza es "imputado, que no acusado" y que hasta que no se rebase esta línea, la Diputación no tomará ninguna medida contra él, siguiendo así el mandato de las propias Juntas Generales que en una proposición no de norma aprobada en pleno, el 13 de enero de este año (con los votos a favor de PNV, PSE-EE y PP, y la abstención de EH Bildu), la Cámara vizcaína acordó que se apartaría a responsables forales de sus funciones, en casos de corrupción, en el momento en que se "incoase apertura de juicio oral".

En cuanto a los méritos de Elorza para forma parte del equipo de asesores del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, puesto en entredicho por algunos grupos de la oposición, Unzueta ha defendido el nombramiento del investigado por ser licenciado en Ciencias Económicas, diplomado en Empresariales y Dirección de Empresas, además de hablar cinco idiomas y tener varios masters, pese a que la normativa actual no exige ninguna titulación para acceder a un puesto de asesoramiento.

Por su parte, la oposición en bloque –EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP- ha pedido a la diputada que relegue ya a Elorza. Su imputación "pone sobre la mesa cómo la Diputación tendría que reaccionar" ante estos casos que laminan la confianza de los ciudadanos en la clase política y van en contra del buen nombre de la Diputación.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Asun Merinero, de Podemos Bizkaia, ha denunciado el hecho de que los asesores se elijan “por el carné político y no por el mérito”, y ha pedido el cese del asesor jeltzale por su mera imputación “como gesto de transparencia y buen gobierno”.

Para el representante de EH Bildu David Lopategi, la respuesta de la Diputación con una persona imputada ha sido “laxa”, “va en detrimento” de la institución y describe que “las cosas - en la Diputación- no han cambiado”, ya que se hereda “el estilo de la vieja política”.

Arturo Aldecoa (PP) cree que “el problema” es que Elorza ha sido imputado “por temas ligados a la política”, ironizando que no lo ha sido por irregularidades en su comunidad de vecinos. Para el representante popular es el propio interesado el que debería tomar la iniciativa de abandonar el puesto y si no es así, que sea la Diputación la que le aparte “de forma temporal” hasta que los tribunales decidan.

Tanto PNV como PSE-EE se han alineado con el argumento de Unzueta, al apostar por dejar trabajar a los tribunales de justicia, ya que de momento no se ha rebasado la línea que las Juntas Generales acordaron sin ningún voto en contra: apartar a un cargo foral cuando el juez o la fiscalía determine “apertura de juicio oral”, momento en el que la persona denunciada pasa de ser “imputada o investigada”, a “acusada”.

En este caso, para el grupo juntero socialista, que apoyó aquella proposición no de norma de enero y que cuenta con cargos que han firmado el Código Ético de la Diputación, sólo en ese caso “exigirá” el abandono del cargo. “Aquí estará el partido socialista, no antes”, ha manifestado Alexia Castelo, quien cree que de no hacerse así, “cualquier denuncia podría apartar a alguien de su cargo”.

María Presa, del PNV, ha dicho que comparte con el resto de los grupos junteros que en el tema de la corrupción “no vale mirar para otro lado”. “Quien cometa un delito debe pagarlo y asumir responsabilidades políticas”, ha dicho. Pero critica la “motivación” que subyace tras estas denuncias que “ponen en tela de juicio la honradez y buen gobierno” de la Diputación y de su partido. Se ha convertido en “un deporte denunciar a cargos jeltzales”.

La apoderada nacionalista se ha quejado de que “nadie diga nada cuando se producen sentencias exculpatorias”. En este caso, “el daño está hecho y la sombra de la sospecha extendida”. Por ello, ha pedido que se respete primero el principio de presunción de inocencia.

## ESTUDIO PARA ABRIR UNA LÍNEA DE AYUDAS A GANADEROS QUE SUFRAN ROBOS

Por otro lado, la comisión ha aprobado, por unanimidad, el que la Diputación realice un “estudio de una línea de ayudas a los ganaderos vizcaínos afectados por robos”. El defensor de la iniciativa, el popular Arturo Aldecoa, ha señalado que en el sector se vienen produciendo robos de reses, maquinaria, forraje y enseres, entre otras cosas, que hacen más difícil la supervivencia de las explotaciones ganaderas del territorio, que sufren una deriva continua. El hurto podría ser “la puntilla” para algunos ganaderos por lo que ha abogado por abrir vías de colaboración siempre que el robo “esté acreditado mediante denuncia y se pueda acreditar los daños producidos de forma fehaciente”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

El resto de grupos, pese a apoyar la elaboración del estudio, han puesto en duda la existencia de ayudas, ya que quedan muchos cabos por atar como decidir el montante de las mismas o quién se beneficia. Creen, además, que podrían crearse precedentes con respecto a otros sectores. “Lo difícil es conjugar el marco de ayuda con el marco legal”, ha señalado Jon Sánchez, quien ha reconocido -después de que su grupo haya consultado a “expertos” del sector primario y aseguradoras-, que es “bastante complicado articular ayudas a colectivos que sufren robos”. “Intuimos que va a ser imposible ponerlo en práctica por el marco legal”, de ahí que Sanchez abogue por “no crear expectativas en el sector”.